

Genetikak osasunean eta giza adaptazioan duen zeregina izango du ardatz 2026ko Darwinen Egunak

EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak, Bidebarrietako Liburutegiak eta Zirkulu Eszeptikoak Charles Darwinen jaiotza bi hitzaldirekin ospatuko dute otsailaren 12an Bilboko Bidebarrietako Liburutegian.

Hitzaldiak Francesc Calafell eta Neskuts Izagirre biologoek emango dituzte: Calafell Pompeu Fabra Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea da, eta Izagirre Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea.

Bilbon, 2026ko otsailaren 5an. Darwinen Egunak otsailaren 12an ospatzen du, urtero, eboluzioaren teoriaren "aita" den Charles Darwin biologo eta naturalista ingelesaren jaiotza. 1809an jaio zen eta zientziaren historiari lotuta geratu da, betiko, 1859an 'Espezieen Jatorria' argitaratu zuenetik. Lan horretan, hautespen naturalaren bidezko eboluzioaren teoria formulatu zuen Darwinek. Liburu horri esker dakigu izaki bizidun guztiak arbaso komun batengandik gatzela eta espezieak denboran zehar aldatzen direla. Eboluzioa deitzen zaio horri eta hautespen naturala terminoarekin ezagutzen dugun mekanismo baten eraginez sortzen da.

Bere jaiotzaren urteurrena ospatzeko, beste urte batez, otsailaren 12an, osteguna, 18:30ean, [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Zirkulu Eszeptikoak](#) bi hitzaldiko egitaraua antolatu dute Bilboko Bidebarrietako Liburutegian, genetikak gizakien osasunean eta gaixotasunean duen zerikusia hobeto ezagutzeko eta ingurune ezberdinetara adaptatzeko duen eraginari buruz hausnartzeko.

Hitzaldiak **Francesc Calafell** eta **Neskuts Izagirre** biologoek emango dituzte: Calafell Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia Esperimentalen eta Osasunaren Saileko irakasle titularra da eta Izagirre Euskal Herriko Unibertsitateko Genetika, Antropologia eta Animalien Fisiologia Saileko irakasle titularra.

Lehenik, Francesc Calafellek *"Eboluzioak osasunari eta gaixotasunari buruz azaltzen duena"* hitzaldia eskainiko du. Bertan, eboluzioaren legeek giza gaixotasun askoren jatorria eta banaketa ulertzeko eta tratamendu posibleak bideratzeko nola lagun dezaketen aztertuko du. Bere hitzaldian, Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak azalduko du zergatik gaixotasun batzuk eremu geografiko jakin batzuetan kontzentratzen diren eta zergatik populazio isolatu batzuek gaixotasun jakin batzuen intzidentzia handiagoa duten eta, aldiz, beste batzuen aurrean erresistentzia.

Ondoren, Neskuts Izagirrek *"Darwinen ondoren: hautespen naturala eta introgresio genetikoa gizakiengan"* hitzaldia emango du. Bertan, hautespen naturalak Indonesiako bajau herriaren ezaugarriak eta hazpegiak nola modelatu dituen azalduko du:



larruazalaren pigmentazioa, laktasaren iraunkortasuna eta [apnea edo urpekaritza librea](#) egiteko aparteko gaitasuna, besteak beste.

Era berean, introgresio genetikoaren papera azalduko du Izagirrek eta baita beste hominido-espezie batzuekin izandako geneen transferentzia ere. Neandertalek, esate baterako, patogeno berrien aurrean erresistentzia eman ziguten, eta denisovanoen geneak ezinbestekoak dira Tibeteko populazioak garaiera handiko bizimodura egokitzeke duen gaitasuna azaltzeko. Horietako ezaugarri batzuk, ordea, ingurune modernoetan okerreko moldaerak ere bihur daitezkeela kontatuko digu EHUKo biologoak, hala nola gaixotasun autoimmune batzuk, alergiak eta obesitatea.

2026ko Darwinen Eguna Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoaren Katedrak, Bidebarrietako Liburutegiak eta Zirkulu Eszeptikoak antolatu dute, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren eta "El Correo" egunkariaren laguntzarekin. **Ekitaldia otsailaren 12an izango da, 18:30ean, Bilboko Bidebarrietako Liburutegian.**

2007tik izen handiko adituek hartu dute parte Darwinen Egunean; besteak beste, Francisco J. Ayala eta José María Bermúdez de Castro biologoek, Juan Luis Arsuaga eta María Martín-Torres paleoantropologoek, Itziar Laka hizkuntzalariak eta Helena Matute psikologoak. Horri esker, zientzia eta kultura maite dutenentzat ezinbesteko hitzordu bilakatu da ekitaldi hau Bilbon. Sarrera doakoa izango da lekua bete arte, eta *streaming* bidez ere jarraitu ahal izango da [KulturguneaTB](#) kanalaren bidez.

Hizlariak

[Francesc Calafell Majó](#) Biologian doktorea da (Bartzelonako Unibertsitatea). 1998tik Pompeu Fabra Unibertsitateko Medikuntza eta Bizitza Zientzien saileko irakasle titularra da. Gainera, Biologia Ebolutiboko Institutuko (CSIC-UPF) Indibidualtasunaren Genomikako Laborategiko ikertzaile nagusia da. 200 artikulutik gora argitaratu ditu egilekide bezala, batez ere populazioen genetikaren esparruan. Giza aniztasun genetikoa atzertzen du, hiru ikuspegi hauetatik begiratuta: populazioena, gaixotasunena eta indibiduala, arreta berezia jarritz aldaketa genetikoaren egitura geografikoan.

[Neskuts Izagirre Arribalzaga](#) Biologian doktorea da (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Antropologia irakaslea EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultateko Genetika, Antropologia eta Animalien Fisiologia sailean. Bere ikerketa antzinako gorpuzkietatik berreskuratutako DNAREN azterketan oinarritzen da. Gaur egun, egungo giza populazioen datu genomikoak aztertzen ditu, haien eboluzio-historia berrosatzeko. Era berean, beste lankidetzat bat hasi berri du metagenomikaren esparruan, irradiazio ultramorearen intentsitatearekin lotutako larruazalaren bakterio-konposizioaren analisisan oinarrituta.

❖ 2026ko Darwinen Eguna:

Hitzaldiak:



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



- "Lo que la evolución explica sobre la salud y la enfermedad" (Eboluzioak osasunari eta gaixotasunari buruz azaltzen duena) – Francesc Calafell Majó, Biologian doktorea eta ikertzailea – Universitat Pompeu Fabra.
- "Después de Darwin: selección natural e introgresión genética en humanos" (Darwinen ondoren: hautespen naturala eta introgresio genetiko gizakiengan) – Neskuts Izagirre Arribalzaga, Biologian doktorea eta ikertzailea – Euskal Herriko Unibertsitatea.

Ordua: 18:30ean.

Eguna: otsailak 12, osteguna.

Lekua: Bidebarrietako Liburutegia (Bidebarrieta kalea, 4 – Bilbo). Sarrera doakoa, lekua bete arte.

Hizkuntza: gaztelania.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



NOTA DE PRENSA

El papel de la genética en la salud y en la adaptación humana centra el Día de Darwin 2026

La Cátedra de Cultura Científica de la EHU, la Biblioteca de Bidebarrieta y el Círculo Escéptico celebran el nacimiento de Charles Darwin con dos conferencias el próximo 12 de febrero en la Biblioteca Bidebarrieta de Bilbao

Las conferencias correrán a cargo de los biólogos Francesc Calafell, profesor e investigador en la Universitat Pompeu Fabra y Neskuts Izagirre, profesora e investigadora en la Universidad del País Vasco

Bilbao, 5 de febrero de 2026. El Día de Darwin conmemora cada 12 de febrero el nacimiento del biólogo y naturalista inglés Charles Darwin, padre de la teoría de la evolución. Nacido en 1809, su figura ha quedado para siempre ligada a la historia de la ciencia tras la publicación en 1859 de 'El Origen de las Especies', obra en la que formuló la teoría de la evolución por selección natural. Gracias a ella, sabemos que todos los seres vivos procedemos de un antepasado común y que las especies cambian a lo largo del tiempo, variación a la que se denomina evolución y que se produce por efecto de un mecanismo al que llamamos selección natural.

Para conmemorar el aniversario de su nacimiento, un año más, el jueves 12 de febrero a las 18:30 horas, la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y el [Círculo Escéptico](#) han organizado un programa de dos conferencias en la Biblioteca de Bidebarrieta de Bilbao, para reflexionar sobre el papel de la genética humana y sus implicaciones en la salud y la enfermedad, así como en la adaptación a distintos entornos.

Las conferencias correrán a cargo de los biólogos **Francesc Calafell**, profesor titular del departamento de Ciencias Experimentales y de la Salud en la Universitat Pompeu Fabra de Barcelona, y **Neskuts Izagirre**, profesora titular en el departamento de Genética, Antropología y Fisiología Animal de la Universidad del País Vasco.

Primero, Francesc Calafell ofrecerá la conferencia *"Lo que la evolución explica sobre salud y enfermedad"*, en la que abordará cómo las leyes de la evolución pueden ayudar a entender el origen y la distribución de muchas enfermedades humanas, e incluso orientar posibles tratamientos. A lo largo de su intervención, el profesor e investigador en la Universitat Pompeu Fabra explicará por qué algunas enfermedades se concentran en determinadas áreas geográficas y por qué ciertas poblaciones aisladas presentan una mayor incidencia de ciertas enfermedades y, en cambio, resistencia frente a otras.

Después, Neskuts Izagirre impartirá la ponencia *"Después de Darwin: selección natural e introgresión genética en humanos"*, en la que analizará cómo la selección natural ha modelado rasgos como la pigmentación de la piel, la persistencia de la lactasa y la extraordinaria capacidad de realizar [buceo en apnea](#) del pueblo bajau, en Indonesia. También expondrá el papel de la [introgresión](#) genética, el traspaso de genes con otras especies de homínidos como los neandertales -que nos aportaron resistencia frente a nuevos patógenos-



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



y los denisovanos, fundamental para explicar la adaptación de las poblaciones del Tíbet a la vida a gran altitud. Asimismo, explicará cómo algunos de estos rasgos, en ambientes modernos, pueden convertirse en [maladaptaciones](#) como algunas enfermedades autoinmunes, alergias y obesidad.

El Día de Darwin 2026 es un evento de divulgación científica organizado por la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco, la Biblioteca de Bidebarrieta y el Círculo Escéptico, con la colaboración del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación del Gobierno Vasco y el diario 'El Correo'. La actividad, que celebra su vigésima edición, tendrá lugar el **jueves 12 de febrero a las 18:30 en la Biblioteca de Bidebarrieta de Bilbao**.

La participación desde 2007 de destacadas figuras de la ciencia y la divulgación -como los biólogos Francisco J. Ayala y José María Bermúdez de Castro, los paleoantropólogos Juan Luis Arsuaga y María Martín-Torres, la lingüista Itziar Laka y la psicóloga Helena Matute, entre otras- ha convertido la celebración del Día de Darwin en Bilbao en una cita obligada para los amantes de la ciencia y la cultura general. La entrada será libre hasta completar el aforo, y también se podrá seguir vía *streaming* a través del canal [KulturguneaTB](#).

Conferenciantes

[Francesc Calafell Majó](#) es doctor en Biología (Universidad de Barcelona). Desde 1998 es profesor titular del departamento de Medicina y Ciencias de la Vida de la Universitat Pompeu Fabra. Además, es el investigador principal en el Laboratorio de Genómica de la Individualidad del Instituto de Biología Evolutiva (CSIC-UPF). Es coautor de más de 200 artículos, principalmente en el ámbito de la genética de poblaciones. Estudia la diversidad genética humana, analizada desde tres perspectivas: poblacional, enfermedad e individual, con especial atención a la estructura geográfica de la variación genética.

[Neskuts Izagirre Arribalzaga](#) es doctora en Biología (Universidad del País Vasco) y profesora de Antropología en el departamento de Genética, Antropología y Fisiología Animal de la Facultad de Ciencia y Tecnología de la EHU. Su investigación se centra en el estudio del ADN recuperado de restos humanos antiguos. En la actualidad, estudia datos genómicos de poblaciones humanas actuales para reconstruir su historia evolutiva. Asimismo, acaba de iniciar una nueva colaboración, en el ámbito de la metagenómica, centrada en el análisis de la composición bacteriana de la piel en relación con la intensidad de la irradiación ultravioleta.

❖ Día de Darwin 2026:

Conferencias:

- "Lo que la evolución explica sobre la salud y la enfermedad" – Francesc Calafell Majó, doctor en Biología e investigador – Universitat Pompeu Fabra
- "Después de Darwin: selección natural e introgresión genética en humanos" – Neskuts Izagirre Arribalzaga, doctora en Biología e investigadora – Universidad del País Vasco

Hora: 18:30.

Fecha: jueves, 12 de febrero de 2026.

Lugar: Biblioteca de Bidebarrieta (Calle Bidebarrieta, 4 – Bilbao). Entrada libre hasta completar el aforo.



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



Idioma: castellano.